

AUTESKUNDEA

(2001-05-13)

Urduritasuna

Egokion eguna baiño urtebete lenago, Euskalerrian oiña ez eukien alderdiak ori ekin eta ekin eskatzen ebelako, azkenean egin zan autezkundea orrillaren 13n. egunean.

Aurreko illeak, ille pare bat bai gitxienez, urduritasunez bateak izan ziran, erbestean sortutako alderdi orreik okerreko salakuntzak eta iraiñak ezarten ebezelako emengo alderdi alkartu (EAJ ta EA)ren aurka, gogorkeriaren alde egozala, batez be. Ori guzur aundia zan, alderdi oneik bete agertu diralako gogorkeriaren aurka eta eraillak izan diranen etxe-koen alde. Besteak beti esaten eben abertzaleak zirala gogorkeriaren errudun eta Ajurianean aldakuntza bear zala, Euskalerrian askatasuna ezarteko. Eurentzat askatasuna ez zan erriarena, ETA'ren aldetik aurrean erabilliak ziran erritar batzurenai baiño.

Guk ondo genkian salakuntza ori guzurrezkoa zana, baiña esan eta esan erritarrak azkenean sinistu egiten dabe eta orrek autarki asko kendu eikezan. Gaiñera, Lendakaria eraildako baten-baten illetara gogo onez joaten zanean, inguruan ziran batzuk iltzaillea! oiukatzen eben eta txistuka bere aurka asi. Ori sarritan jazo zan, baiña geien Jaka'n izandako illeta baten.

Orregaitik, euskalzaleak eta abertzaleak oso urduri genozan.

Euskaldunak zutunik

Etorri zan aukezkunde-eguna eta goizean asita autarkia emoten iñoz baiño erritar geiago agertu zan. Itxaropena zan gugan. Euskaldunak guzurren eta iraiñen aurka zutunik egozan, zorionez! oraingoan arabarrak be bai. Gabean asi ziran autarkien zenbaketa egiten eta, a bai poza, EAJ ta EA'k autarki asko artu eben. Azkenerantza kanpotiko alderdi bien autarkiak eta emengoenak, zenbaki bardiña eukien. Barriro urduritasuna!

Baiña gabeko amaiak baiño lentxuago urduritasun ori aunditu egin zan: Aurki edo eskañu bat egoan nora ezean,

batera jausten ba'zan, eurak nagusi, bestera jausten ba'zan emengoak nagusi. Lekeitio ta Plentzia'koak ziran zenbatzako egozan autarkiak eta orrek itxaropena emoskun erri abertzaleak ziralako. Azkenean autarkiak erabagi eben aurki ori gutzat izatea eta orrelan 33 aurki ziran gurenak eta 32 eurenak. Azkenean arnasea artu gendun!

Jaurlaritza barria gertatzen

Orain, Ilege-aurki orreik kontuan dirala, aldirako Lendakari dan Juan Jose Ibarretxe'k egin bear dau guztiakaz al karizketa. Au da giroa: PP'k ez dau nai jankide izaterik gu gogorkeriaren alde gagozelako, PSOE'k ez dau nai Araudia ta Laterri-legea oiñarrizat artzen ez ba'dira. EH ez da onartzen gogorkeria "kondenatu" arte.

Zer egin olako egoeran?

Antza dagoanez, ez da beste biderik ikusten EAJ ta EA'k jarukaritza osotzea baiño, eta 33 autarkigaz ori egin leikee bigarren ekinaldian. Gero lege bakoitxean orren gaiñera datozen autarkiak onartuak izango dira.

Ezker Batua alkartuko ete dan gureakaz, diñoie.

Norantza jo?

Araudi ta Laterri-legea, urtenbidearen asiera lez, onartu eta ortik aurrera aldakuntzea billatu, geure buruaren jabetza eta, epe luzeago baten, askatasun osoa lortzeko. Orain esangura argiagoa dauka "Gora Euzkadi Azkatuta" geurea dogun oiuroeroak. Urrin ete (lago askatasun osoa?

Kanpoan oiñarria dauken alderdiak, itun eta buru-makur agertzen dira eta euren arduradunak lanean emen jarraituko dabela diñoie. Ori batez be garrantzizkoa da Mayor Oreja'rentzat. Beronen ministeritza itzita etorri zan, bete-betean lendakari izango zalakoan. Ezetzak urten dau. Orain zer egin? Emen jarraitu bere alderdia dan PP'ren alde jokatzan.

Euskaldunak, iñoz baiño geiago, zutunik gagoz! ■

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!